

# “HASIERAN NAHIKO ZAILA EGIN ZITZAIGUN WIKIA ERABILTZEA”



*José Ramón Iturain | Kosmojakintsu Txikiak | Axular Lizeoa | LH 1*

“Proba-akatsa” printzipioa aplikatuta, Axular Lizeoko José Ramón Iturainen taldeak nabigatzailea kasualitatez topatu zuela dio, eta nabigatzaile horri esker lortu dute Grapho Planetaren erronka betetzea, Lehen Hezkuntzako 1ean puntuazio handiena lortuta. Ez da soilik teknologia kontua izan: talde lanean gogor aritu gara eta erantzukizunez jardun gara.

## ***Zer moduz moldatu zarete wikia erabiltzen?***

Hasieran dezente kosta zitzaigun. Izan ere arazoak izan genituen Testua idatzi eta editatzeko aplikazioa “instalatu” eta erabiltzeko. Nabigatzaile batzuek ez baitzuten erabiltzen uzten (adibidez Crome-k edo Explorer-ek).

Pixkanaka pixkanaka joan gara ezagutzen eta “trukoak” hartzen.

## ***Ba al du zailtasun gehigarri eta ustekabekorik?***

Bai. Zenbait ekintza ezin ziren nabigatzaile batzuetan egin, eta batean egin zitekeena ezin zen beste batetan egin. Adibidez, Testua editatzeko Firefox erabiltzen genuen (honekin bakarrik lortu dugu), aldiz Firefoxekin ezin genituen

estekak txertatu. Honetarako Explorer nabigatzailea erabili behar genuen. Hau jakitera iristeko erotuta ibili ginen eta probatuaz, txiripaz, jakin genuen.

### ***Zer trebetasun berri eskatzen dizkie ikasleei?***

Batzuk, gehienak ordenagailua eta multimediei loturikoak, baina beste batzuk etorkizunean, eguneroko bizitzan sarritan egin beharrekoak. Adibidez, gure ikasleen kasuan:

- Elkarrizketak egiteko zenbait aditurekin harremanetan jarri dira. Honetarako, laguntza eskatuaz eskutitzak prestatu behar izan dituzte,
- Ondoren eskutitz hauek e-mail modura idatzi dituzte eta noski igorri.
- Honekin lotuta, elkarrizketatuen erantzuna jaso duten edo ez hardura hartu behar izan dute.
- E.mailak erantzun dituzte.
- Bestalde, argazkiak pendrive-etan ekarri dituzte gehienek. Hauek gelako ordenagailura pastasen ikasi dute. Ondoren hauek "editatu" dituzte (izena jarri gainean argazki bakoitzari, eta argazki muntaiatxoak egin musika txertatuaz).
- Beste argazki batzuk paperean ekarri dituzte. Hauek eskaneatu egin ditugu. Artxiiboak zabaldu eta besteekin bezala "editatu".
- Ordenagailuan testuak idatzi eta hauei kolorea, tamaina etab. aldatzen ikasi dute.
- Lan taldeetan aritu direnez ardura eta erantzunkizuna ere landu dute.

### ***Zure ustez puntuazio-mailari eutsiko diozue Mito planetan?***

Gogotik saiatuko gara zalantzarik gabe!

### ***Ba al da lehiarik zuen zentroko taldeen artean?***

Egia esan behar badugu, besteek zer egiten duten interesa badago, baina lehia (borroka moduan) ez. Elkarri ideiak ematen ere saiatzen gara.

### ***Bereziki motibatua al dago taldea oraingoz irabazlea dela jakinda?***

Kosmodisearekin orokorrean motibatuak gaudela esango nuke. Orain animatuago agian? Baliteke. Mito planetarako ideiak berriak proposatzen ari gara.

[Axular Lizeokoen lana ikusi \["Kosmojakintsu txikiak"\]](#)